



NEREA IBARRONDO IZARO ASTARLOA

JAIK GAINEN ETA JAIKI, DENDA BARRUTIK BEGIRATZEN DIOTENIK BADAGO. HORREN ERAKUSLERIK ONENA, TXANDAKA BAINA, GUARDIAN GAU ETA EGUN EGON BEHARRA DUTEN BOTIKA SALTZAILEAK. NEREA IBARRONDO EIBARTARRA ETA IZARO ASTARLOA ERMUARRAK ZERBITZU HORI EZAGUTZEKO AUKERA EMAN DIGUTE.

- Zer da guardian egotea?

Teorikoki bakarrik erreze-ta medikoarekin datozen pertsonak hartu behar ditugu, baina jendeak sarriegi 24 orduko zerbitzu

bat bezala ikusten gaitu. Zerbitzu eroso, azkarra eta arin eskuratzeko modukoa denez, ez da errezelorik egoten txirrina jo eta edozein ordutan ur-

gentzia bako gauzarik bitxia eskatzeko.

- Ez dugu orduan behar den moduan errespetatzen?

Gauzak asko aldatu dira, kalean zerbitzuen beste kontzeptu bat dago eta ordutegiak, laneko txandak eta eroste ohiturak zerbitzu horren demanda eraldatu dute.

- Medikuairena lana egiten duzuela pentsatzen duzue?

Ez, gu filtro bat gara. Jendeak badaki ez dugula diagnostikorik egiten. Arazoa da egunero eta orduro ehuneko ehunetan egon nahi dugula. Dena konpondu behar da berehala, gorputzari saneatzeko behar duen denbora eman gabe.

- Santixauetarako salmentaz zerrenda berezirik duzue?

Bai. Zeren egunean ez tarri urratua osatzeko mota guztietako pilulak dira jaun eta jabe. Santixau bezperan esparatrapua, bonboaren mazoa eusteko eta puzpiloak saihesteko; talko hautsak nola ez, txupeteak, kalimotxoa sartzeko biberioiak... Eta preserbatiboak, noski!

- Kondoia, sasoi baten baino lasaia eskatzen ditugu?

Bai, baina hala ere bistan ditugu eta bezeroak "emadazu horrelako kuxta bat" eskatzen digu, atzamarrarekin erakutsiz. Neskak kondoia eskatzen dituzte, mutilak gomak eta edadeko jendeak preserbatiboak. Udaberri uda aldera kontaktu gehiago daudenez

gorantz doa bere eskabidea.

- Eta hurrengo eguneko pilula-rena?

Baita eta kezagarria da. Haurdun ez geratzea nahi izaten da eta pilula hori hartuta, dena konpondu dagoela pentsatzen da. Baina ihesa hor dago, errespetua galdu zaio eta gorantz doa bere kutsadura maila gazte jendearen artean; kondoia ostera, kontaktuak dakarren infekzio eta gaixotasun arriskua saihesten du.

- Ajeari, ostiari aurre egiteko formula magikorik?

Ezer ez, hurrengo eguna ohean ematea eta kito!

- Zarata dela eta, pertsona nagusiek lo egiteko ezer berezirik eskatzen dizute?

Ez. Jendeak jaiak direla jakin badaki, burrunbada egun batzuetarako ziurtatuta dagoela eta oso jai partehartzaileak direnez, ez da kexa gogorrik egoten.

- Anekdotarik?

Sarri eskatzen digute tentsioa hartzeko ondoezik daudela eta; ez dira konturatzen tartean leihatila estu txiki bat dutela. Zera sartuko du handik be-soa! Goizaldeko bostetan haginak zuritzeko pasta edo ezpainetarako kakao eskabidean esnatu gaituenik ere badago. Edo kanpoan jarrita dagoen preserbatiboaren makina automatikorako kanbio eske altxatu eragin... Denetarako jendea dago!

Estibalitz González



EKIN EZ

ESKOLAKO MATERIALEA

KOPIAK KOLOREZ

FAX PUBLIKOA

• Goienkale, z/g
• Tlf. 17 20 08



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

San Pelaio 8C, behe
48260 Ermua
© 943 17 47 44